

# Emakumeen esperientziak banantze eta dibortzio prozesuetan

Gizonen botere-dinamikei  
eta indarkeria  
naturalizatuei buruzko  
azterketa kualitatiboa

LABURPEN EXEKUTIBOA

2021

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bultzatua eta finantzatua, IPES Fundazioaren partaidetzarekin.

**Egileak:**

---

Rut Iturbide  
(IPES, Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa):

Patricia Amigot  
(Nafarroako Unibertsitate  
Publikoa):

Susana Covas:

**Lan hau editatzen duenak babesten du, eta erabiltzeko beharrezkoa da  
Iturria: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Berdintasunerako Institutua**

## **SARRERA. EMAKUMEEI AHOTSA EMATEN**

Azterlan honetan, emakumeen **banantze- eta dibortzio-esperientziei** erreparatuko diegu, lehen pertsonan kontatutako esperientziei, baina begirada profesionalaren bidez kontatutakoei ere bai. Gure gizartean dauden genero-desberdintasunek botere-dinamikak baldintzatzen dituzte harreman afektibo heterosexualetan, eta, batzuetan, nabarmenago agertzen dira, baita ere, banantze- eta dibortzio-prozesuetan. Azken urteetan, berdintasunaren arloan izandako eraldaketekin batera, genero-hierarkia aldatzeko erresistentzia sakonak daude, eta horrek tentsioa sortzen du bikote-lotura askotan. Ildo horretan, genero-asimetria horiek espazio pribatuan nola artikulatzen diren aztertu behar da, etorkizuneko ekintzetarako kontuan izatearren.

**Bereziki, emakumei erreparatuko diegu** arrazoi ezberdinengatik: lehenik eta behin, garrantzitsua delako emakumeen esperientziak artatzea ezagutzaren ekoizpenaren joera androzentrikoei eta diskurtso sozialetan topiko eta aurreiritzi gisa daudenei aurre egiteko. Bigarren, ikerketa-historia luze baten arabera, lan- eta ekonomia-egoerak, hazkuntzak eta bikotean zaintzaren erantzunkidetasuna ezartzeko zailtasunak, beste faktore batzuen artean, eragin negatiboa izaten jarraitzen dutelako emakumeen bizitzan. Emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio iraunkor horrek bikoteari eta familia-instituzioari eragiten die, eta emakumeengan negatiboagoa izan daiteke dibortzioaren kasuan, kasu bakoitzaren arabera, haien ahultasun-egoera existentziala areagotuz. Hirugarren, salatu gabeko indarkeria asko banantze-prozesuetan daudelako, eta, beraz, horiek detektatu eta artatzeko profesionalak behar dira. Azkenik, balioa emateko aurreiritzirik gabeko entzute batetik entzuten diren edo entzuten ez diren kontakizunei.

Dibortzioek eragindako kalteek, termino soziologikoetan, ez diete berdin eragiten gizonei eta emakumei, baina **ezta emakume guztiei berdin ere**. Azterketa honetan, **arreta** eskainiko diegu, gehiengo izanik, gizarretik baztertzeko egoeran aurkitzen ez diren edota indarkeria matxistaren biktima bezala hartzen ez diren emakumei; izan ere, askotan ez dira aztertzeko edo kezkatzeko arrazoi izaten, **genero- eta diskriminazio-gatazkarik izango ez balute bezala**.

## **ESPARRU TEORIKOA. GENEROA, DESBERDINTASUNA ETA HARREMANAK**

Harreman-esperientziak eta horien haustura genero-ikuspegiarekin aztertzeko kontzeptuzko eta ikerketazko sare batean oinarritzen bagara, gakoak izango ditugu genero-harremanak botere-harreman gisa nola eratzen diren eta hori bikoteen eguneroko jardunean eta banantzeko zailtasunean nola gauzatzen den ulertzeko. Egitura patriarkala genero-arauak eta desberdintasunaren logika sistemikoak errepikatuz erreproduzitzen da, baina baita harreman afektiboak zeharkatzen dituen botere-jardueraren bidez ere.

Esparru teorikoa, batetik, egitura patriarkal hori ezaugarritzen oinarritzen da, batik bat, bi egitura-dimentsiorekin lotuta: lanaren banaketa sexuala (eta emakumeen lanaren ikusezintasuna) eta femeninitasunaren eta emakumeen debaluazio sinbolikoa. Generoak, botere-sistema gisa, gure

harremanak eta identitateak baldintzatzeaz gain, gizonen eta emakumeen posizioak hierarkizatzen ditu, beste desberdintasun-ardatz batzuekin lotuta, eta gizonen kasuan, baliabide materialak eta sinbolikoak eskuratzea errazten du, emakumeei dagokienean mugatuaz; beraz, genero-arrakalek agerian uzten dute hori. Teoria feministak, beste faktore batzuen artean, desberdintasun horren ezarpena **generoaren sozializazioan eta gizonen eta emakumeen identitateen konfigurazioan** kokatzen du. Sozializazio horren ondorioz, alde batetik, genero-estereotipoak eta -mandatuak eta erregulazio emozionalako moduak baneratzten dira; eta, bestetik, joera subjektibo ezberdinek identitate maskulino individualizatuagoa eta auto erreferenteagoa, onarpen sozial handiagoa duena, lortzen laguntzen dute, identitate femenino erlazionalagoa, deszentratuagoa eta onarpen sozial txikiagokoa erraztearekin batera.

Faktore psikosozial horiek **elkartzeko moduak baldintzatzen dituzte**. Hainbat teoriak tresna kontzeptualak eman dituzte botere maskulinoa espazio afektiboan nola gauzatzen den ulertzeko: *mikro marxismoak*, negoziatzeko dinamika desberdinak, *mikro definizioaren boterea* edo arrazoiaren eta objektibotasunaren auto esleipena edota irizpide auto erreferenteak. Hala ere, emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenek eragina izan dute gizonen nagusitasun hori gauza daitekeen moduetan, hain esplizituak eta autoritarioak bihurtu ez direlako -nahiz eta indarkeria-adierazpen askotan argi eta garbi agertu-, eta sotilagoak eta naturalizatuagoak dira.

Azkenik, esparru teorikoak dibortzio-prozesuak bereizten dituzten eta ikerketak babestu dituen zenbait elementu soziologiko jorratzen ditu. Lehenik eta behin, gaur egun eta mendebaldeko testuinguruan, emakumeak dira banantzeak eta dibortzioak gehien eskatzen dituztenak. Hori **paradoxa** moduan aurkezten da, aldi berean, emakumeak baitira bikotea aurkitzea gehien nahi dutenak, eta, ziurrenik, egungo bi gai islatzen ditu: maitasunak oraindik ere emakumeen posizioan duen garrantzia, alde batetik, eta emakumeek gehiago sentitzen duten ondoeza eta frustrazioa, bestetik, bikotean aintzatespenik ez izateagatik eta zaintza eta etxeko lanaren gaitzespenagatik. Bigarren, emakumeak gehiago pobretzeko joera adierazten da dibortzioaren eta banantzearen ondorioz (hori ikerketan aztertuko da). Azkenik, genero-indarkeriaren errealitate espezifikoak jorratuko da, emakumeak kontrolatzeko eta menderatzeko indarkeriarena, edo botere-egoera hori zalantzan jartzeari erantzuteko indarkeria. Dibortzio- eta banantze-egoerak indarkeriatik ateratzeko bilatzen dira, baina arrisku-egoerak izan daitezke, indarkeria gogortu egiten delako, handitzen delako (indarkeria bikarioa eta seme-alabak erabiltzea, adibidez) edo itxuraz existitzen ez zen egoera batean agertzen delako.

## **HELBURUAK ETA METODOLOGIA**

Azterketa honen bitartez, banantze- eta dibortzio-prozesuetan aurkitzen diren emakumeen esperientziara hurbildu nahi da genero-ikuspegiarekin, genero-desberdintasunak, botere maskulinoaren dinamikak eta indarkeria naturalizatuak aztertzeko, bikotearen ibilbidean zehar nahiz hauste-prozesuan, zerbitzu eta figura profesionalen esku-hartzean genero-ikuspegia bultzatzen laguntze aldera.

**Azterketa kualitatiboa** da, eta, hortaz, ez du inolako adierazgarritasun estatistikorik nahi, eta epistemologia feministan kokatzen da. Era horretan, lehentasuna ematen zaie emakumeen ahots eta esperientziari, haien ikuspuntua ezinbestekoa baita logika patriarkalak jarrera zorrotz eta zuhur batetik ulertzeko, jakinik ezagutza oro nonbaitetik sortzen dela eta, beraz, sozialki kokatuta dagoela (Harding, 2004; Haraway, 2004).

Informazioa **eztabaida-talde**en bidez bildu da, hots, bikotekidearengandik banandu edo dibortziatu diren emakumeekin, eta **taldeko elkarrizketak** egin dira prozesu horren faseetan nolabait esku har dezaketen informatzaile profesionalekin.

Emakumeak *elur-bola* moduko laginketa baten bidez hautatu ziren, ez probabilitikoa, eta azterketaren xederako funtsezkoak ziren irizpide espezifikoko batzuk jarraituta: bananduak edo dibortziatuak, 35 eta 47 urte artekoak, eta gizarteratze-egoeran zeudenak (ikasketak, enplegua, familia, lagunak, e.a.), batez ere seme-alabak zituztenak, horietako batzuk genero-arloko prestakuntzarekin edo hausnarketa/eztabaida feministako taldeetan parte hartutakoak eta beste batzuk parte hartu gabeak.

**Profesionalei** dagokienez, banantze- eta dibortzio-kasuetan lan egiten duten pertsonak elkarrizketatu ziren (bitartekaritza, abokatuak eta Biktimen Arreta Integralerako Taldeak). Gainera, behin eta berriz saiatu ziren Familia Topaguneko profesionalen laguntza izaten, baina, zoritxarrez, zerbitzuak lan gehiegi zuenez, ezin izan da elkarrizketa burutu. Halaber, elkarrizketa bat egin zitzaion Familia Topaguneko eragindako Gurasoen Elkarteari.

Landa-lana 2021eko maiatzetik abuztura bitartean burutu zen. Iraupen luzeko bi eztabaida-talde eta taldeko bost elkarrizketa egin ziren. Taldeen garapena modu anonimizatuan grabatu eta transkribatu zen. Horrela, ateratako testu-corpua bi mailatan aztertu zen: diskurtso-analisia (kontakizunaren korapiloak: pasarte esanguratsuak) eta edukiaren analisia (ardatz analitikoak eta bikotearen desberdintasun dinamikien kategorizazioa eta banantze-prozesuko zailtasunak/oztopoak). Anlisi-prozesu hori aintzat hartuta, txostena egin zen emaitza adierazgarriekin.

## **EMAITZEN ANALISIA**

Azterketa honen emaitza nabarmenenak bost bloketan egituratu dira:

### **a) Bikotearen ibilbidea**

Lehendabizikoan, **bikote-ibilbideen kontakizunari begirada orokorra eta luzetarakoa** egin zaio. Anlisiaren arabera, harremanaren hasieran agertzen diren genero-baldintza estereotipatuak (ezkontzea, seme-alabak izatea, e.a.) nabarmendu daitezke. Hasiera hartan, zoriotsu bizi zirela, bizitza oso bat zutela eta autonomia-baliabideak zituztela kontatzen dute. Baina, luzetara begira, autonomia eta aukera materialak galtzen edo mugatzen doazela ikusten da, baliabide asko jartzen dituztelako bikotearen eta familiaren eskura, zaintzen bitartez, eta horrek baliabideak gutxitzen dizkiete (ekonomikoa, sozialak, erlazionalak, e.a.). Badirudi prozesu hori ez dela gizonen kasuan gertatzen, haien bizitzan zentratuagoak daudelako, prestakuntzan eta

profesionalki neurri handiagoan aurrera egitea lortzen dutelako eta bikotekidearen ekarpena batzen dutelako, zaintzak naturalizatuaz.

## **b) Harreman-asimetriak**

Bigarren atalean, zehazki, **bikotearen asimetria-faktoreak eta interakzioko desberdintasun-dinamikak** aztertu dira, botere-dinamika horiekin loturiko ondorioekin amaitzeko. Harreman-asimetria horiek zerikusia dute, batetik, inertzia estereotipuekin, askotan, negoziatu gabe ere, zaintzaile nagusi bezala kokatzen baitituzte; bigarren, argi agertzen da haiek bikotean duten zentraltasun-posizioa, haien proiektuak eta irizpideak eragin handiagoa baitute bikotearen jardunean eta elkarreragiteetan. Gainera, botere-ariketak ikusten dira zentraltasun horri eusteko eta emakumeen irizpide edo eskaeren aurreko erresistentziak. Zenbait kasutan, desira eta premia horiek gertaeren indarrez ezartzen dira; beste batzuetan, berriz, “logiko” edo “normalena” den moduan aurkezten dira; eta beste batzuetan, horiek gauzatzea lortzeko manipulazioak egoten dira. Emakumeen desira eta premiei dagokienean, zalantza, egokitzapen eta zailtasun handiagoak ikusten dira horiek lortzeko; esate baterako, ikasi edo lan egin nahi duten kasuan, uztartzeko zailtasunak daudenean, beraiek konpondu behar izaten dituzte bikotekidearen laguntzarik gabe, hori haren “arazo partikulartzat” hartzen duelako.

Horrek ondorioak ditu emakumeengan; hala nola, autonomia erdigunean jartzeko mugak ezartzeko eta iritzia baliarazteko zailtasuna, edo elkarrekikotasun ezaren esperientziak eta aintzatespena lortzeko saiakerak dakarren higadura. Material eta emozional aldetik elkarrekikotasunik ez izatea ondoeza bezala agertzen da, askotan nekea izan daiteke, bikotekidearen terapiaren bidez kudeatzen ahalegintzen diren egonezina, bikotekideak oro har erresistentzia jartzen dutelarik, eta banako terapiaren bidez kasu gehienetan, bikotekidearen zailtasunetatik gehienbat eratoritzen dena modu indibidualean zifratuz.

## **c) Banantze-prozesuak**

**Hirugarren** atalean, **banantzearen prozesu konplexua** jorratu da. Erabakia azaltzeko eta legitimatzeko moduak aztertu dira, **kasu gehienetan emakumeak baitira erabakia hartu dutenak**. Illouzen sailkapen (2019) jarraituz, bi narratiba argi daude: nekea *pilatzea* eta arretarik eza, eta *mikro traumak*, esperientzia kaltegarriak eratzen dituzten eta bikotearen ibilbidearen nodo bezala geratzen diren egoerak. Soilik bi kasutan azaltzen da haustura maitasuna galtzearen ondorioz, *errebelazioari* dagokionez.

Oro har, emakumeek ahultasun-egoera handiagoa dute, baliabide ekonomiko gutxiago izateagatik (oro har, urteak eman dituztelako hazkuntzan, murrizketa eta eszedentziekin); era berean, negoziazioan atzera egiten dute beldurrarengatik eta seme-alabekiko zaintzaren eta harremanen inguruko gatazkak saihesteagatik. Ondorioz, ondorio negatiboak dituzte esparru ekonomikoan.

Gainera, eta emakumeak *“denarekin geratzen direla (etxea, elikagaien pentsioa, seme-alabak, e.a.)”* bezalako topiko sozialetatik urrun, egiaztatu da aztertutako kasu gehienetan emakumeak ateratzen direla etxetik, eta horrek ginkarga ekonomikoa ekartzen die (beste etxebizitza bat erosi beharra, alokairua ordaindu beharra, e.a.). Horrez gain, ikusi ahal izan da, gizonek eskatzen eta lortzen dituztela zaintza

partekatuak, aurretik haurren ardura hartu ez duten kasuetan ere. Emakume gehienak, hasieratik, ados egon ohi dira zaintza partekatuarekin, betiere seme-alabak zaintzeko lanak banatzea araua izan bada eta gizonak arduraz betetzen badute guraso-rola. Fidagaitzenak harremanean zehar hazkuntza partekatu ez dutenak dira, batez ere haurrak txikiak zirenean.

Hori dela-eta, askotan, banantzea ahalik eta gehien atzeratzen dute, baita indarkeria-egoeretan ere, harik eta seme-alabak hazi arte, haiengan ez dutelako konfiantzarik, aurrez ere hazkuntzan ez direla inplikatu kontuan hartuta. Aztertutako kasu batzuetan, gainera, egiaztatu da zenbait gizonak zaintzak erabiltzen dituztela xantaia edo mehatxu gisa. Egoera ekonomiko hobeak babestuta, zaintza osoa eskatzearen mehatxua egiten diete eta zaintza partekatua izango dela ziurtzat jotzen dute. Badirudi garrantzitsua dela hausnarketa egitea Nafarroako *zaintza partekatu estandarizatu*ei buruz eta akordioak gehiago kontrolatzeko eta hitzartutako erregimena betetzeko beharrari buruz, adingabeen ondasun juridikoa ziurtatze aldera, guraso-ahalaren aurrean.

#### **d) Indarkeria-kasua**

**Laugarren** atala **emakumeen aurkako indarkeriari** eskaini diogu zehazki. Nabarmentzekoa da botere-dinamiken eta emakumeen aurkako indarkeria bilakatzeko deriben artean mugaketa bat ezartzea zaila dela, indarkeria matxista deslegitimatzen eta desnaturalizatzen doan heinean, indarkeria horren adierazpen batzuk ikusten ikasten baitugu.

Atal honetan, emakume batzuek kontatutako egoera asko indarkeriatzat har daitezkeela kontuan izan gabe, espezifikoki aztertu da **genero-indarkeria egiaztatutako** profesionalekin harremana izan duten bi parte-hartzailearen kasua. Kasu horiek erakusten dute askotan indarkeria ez dela salatzen (eta hori berez ez da negatiboa; testuinguruan kokatu behar da), gizarte-zerbitzuetara jotzen dutela, bitartekaritzara eta abokatuetara, eta zerbitzu horietan batzuetan mezu kontraesankorrak jasotzen dituztela, eta seme-alabak hazi arte aguantatzen dutela, zaintza partekatu baten beldur izateagatik. Era berean, atal honetan, hainbat zerbitzutako profesionalen esperientzia sakondu da. Genero-arloan prestatu behar dela nabarmendu da indarkeria detektatu ahal izateko; prestakuntza hori eskatzen dute profesionalek eta ikuspegi feminista dutenek argudiatzen dute, inkoherentziak, detektatze falta, indarkerien ezkutatzek (*gatazka handiak edo harreman toxikoak* bezalako kategoriekin) hautematen baitituzte. Era berean, profesional batzuk kezkatuta agertzen dira banantze- eta dibortzio-prozesuen une ezberdinetan esku hartzen duten zerbitzu batzuetan lan gehiegi edukitzeagatik eta generoaren ikuspegirik ez izateagatik.

**Prestakuntza eta generoaren gaineko kontzientziarik gabe**, litekeena da esku-hartzeek eskema sexistak bideratzea, logika patriarkalaren eta gure prozesu kognitiboen dimentsio sinbolikoaren parte izanik. Adibidez, tratu txarren aurrean bere burua defendatzen duen emakumearen jokabidea “gatazkatsua” edo “desegokia” dela esatea; edo aita egokitzen hartzea familia zaintzeko ezer handirik egiten ez duen pertsona bat, eta ama txartzat hartzea ama perfektuaren, entregatuaren eta zaintzarako prest dagoenaren estereotipoa betetzen ez duen pertsona.

Profesionalekin egindako elkarrizketetan, halaber, egiaztatu dugu bitartekaritza bezalako eremuetan indarkeria-kasuak ez tratatzeko arauak eskatzen duela, alde batetik, profesionalek gaitasunak izatea indarkeria-istorioa horiek detektatzeko; eta, bestetik, zer egin galdetzea, indarkeria hori hautemanda ere, emakumeek espazio horretan jarraitu nahi dutenean, salatu nahi ez dutelako, lehenbailehen amaitu nahi dutelako eta aukerak beldurtu egiten dituelako. Horrek erakusten du oraindik **ebatzi gabe dagoela salatzen ez diren** baina ahalik eta lasaitasun handienarekin banandu ahal izateko laguntza eta segurtasun-espazio bat behar duten **makina bat indarkeria-kasu jorrazteko modua**. Beraz, bulo jakin batzuek zabaltzen dutenaren alderantzizko egoera dugu aurrean: jasaten duten indarkeria baino askoz ere gutxiago salatzen duten emakumeak edo banantzen ahalegintzen direnak indarkeriarik aipatu gabe, ez aipatzea aholkatzen zaielako, indarkeria oso bistakoa eta fisikoa ez bada, behintzat.

### **e) Orainera eta etorkizunera begiratzea**

**Azken** puntuarekin amaiera emango zaio analisiari, azken fase honetan bizitako onurak eta irauten duten anibalentziak eta zailtasunak egungo egoeran artatuta. Oro har, gogoeta-prozesu luzeen eta dibortzio konplexuen ondoren, emakumeak **gai dira baliabideak eta autonomia berreskuratzeko eta haien bizitzak berregiteko** kasu askotan indar eta zentralitate handiagoarekin. Hala ere, lanak erakusten digu askorentzat, nahiz eta arlo zehatz batzuetan ahaldundu (enplegua, adibidez) zaila izaten jarraitzen duela harreman afektiboen espazioak. Hori dela-eta, funtsezkoa da emakumeen egoera existentziala aldatzeko lan egitea, eta, hortaz, ahalduntze sakonago eta espezifikago bat burutzea gizonekiko harremanei dagokienean.

## **ONDORIOAK**

Parte-hartzaileek kontatutakoek berretsi dute **oraindik ere desberdintasunak daudela etxeko lanak eta zaintzak banatzerakoan; hau da, oro har, erantzunkidetasunik eza**. Horrek eragina du emakume askoren lan-bizitzan, batzuek enplegua utzi edo seme-alabak etortzean bilatzeari uzten diotelako edo lanaldia murriztu edo eszedentzia hartzen dutelako. Materialki, eta lan-merkatu desberdin baten testuinguruan, eragin negatiboa du horrek: haien garapen profesionala moteltzea, kotizazioa murriztea, birziklatzeko eta prestatzeko aukera gutxiago izatea, ondoren lana aurkitzeko zailtasuna izatea, edota, oro har, lankideek baino soldata txikiagoak izatea. Era berean, sinbolikoki, bikotean botere gutxiago izatea bultzatzen du; izan ere, askotan, ordaindu gabeko baina ezinbestekoa den lan hori ez da aitortzen duen balio osoarekin. Aztertutako bi kasutan soilik negoziazioan kontuan hartu da emakumearen inbertsio emozionala, denborazkoa eta fisikoa umeen hazkuntzan eta etxeko lanetan edota hori egiteak dakartzan ondorio laboralak eta ekonomikoak.

**Lehen ondorioa:** *botere-dinamikak eta -arriketak zereginen eta rolen banaketatik haratago doaz. Gizonen berdintasunezko diskurtsoak ez dira eguneroko jardunean islatzen. Elkarrekikotasunik ezaren logikak bere horretan jarraitzen du.*



Harreman-desberdintasunak aztertzeari eskainitako arretari esker, zereginen eta rolen banaketatik haratago doazen zenbait botere-dinamika eta -ariketa zehaztu ahal izan dira. Bikote heterosexualek, neurri handi batean, genero-baldintza estrukturalak eta asimetriak erreproduzitzen dituzte, mikro mailan logika patriarkalak ere bereizten dituztenak. Aztertutako istorioak dituzten emakumeen profilek kontzientzia feministaren maila desberdinak erakusten dituzte, eta, ildo horretan, kasu batzuetan, berdintasunezko balioak defendatzen dituzten gizonei buruz ere hitz egiten dute. Dena den, sozializazio-prozesuetan eskuratutako zenbait jarrera eta pribilegio agertzen dira haien jokabideetan, eta horrek erakusten du berdintasunezko aldaketa-erritmoek aurrera egin dezaketela diskurtsoaren planoan, baina askoz ere **erresistenteagoak** eta maltzurragoak direla eguneko jardunean, emakumeekiko harremani dagokienean.

Asimetria horiek abiapuntuko estatus-desberdintasunarekin lotuta daude, eta, batik bat, gizonen posizioaren zentralitate gisa agertzen dira, eta horrek haien premien eta nahien legitimitatea naturalizatzen du. Ondorioz, gizonek protagonismo handiagoa dutela ikusten da erabakiak hartzerakoan edo desorekak daudela bikotean negoziatzerako orduan. Oro har, dinamika horiek higadura emozionala eragiten dute, kontuan ez hartzearen sentsazioarekin eta errekonozimendua eskatzen duen posizio batean kokatzearekin lotuta. Beraz, **elkarrekikotasun ezaren logika antzematen da errekonozimenduan** eta zaintza emozional eta pertsonalean, erlazioan zehar gehiago edo gutxiago landu direnetan, eta horrek du pisu gehien banantzeko erabakia hartzerakoan. Erabaki hori, ordea, errekonozituak izateko saiatzeko, itxaroten eta eskatzen urte asko igaro ondoren iristen da. Kasu askotan, prozesu hori psikoterapiarekin batera egiten da, harik eta eragile batek - lerro gorria gurutzatzen duen portaera bat, gezurra esatea, adibidez- erabakia hartzea bultzatzen duen arte.

**Bigarren ondorioa:** *bikote-bizitzan zehar, ahalduntzearekin eta autonomiarekin zerikusia duten baliabideak pixkanaka galtzen joaten dira.*

Emakumeek kontatutakotik abiatuta, erlazioaren historia aztertzean, ia kasu guztietan, ahalduntzearekin eta autonomiarekin zerikusia duten baliabideak pixkanaka galtzen joan direla ikusi da. Espazioak, denborak, norbera zaintzeko esperientziak murrizteko joera dagoela egiaztatu da, gizonek baliabideak murriztu ordez, botere-posizioa sendotzen duten bitartean. Badirudi haien proiektu profesionalekin jarraitzen dutela, familia bat dutela etxean eta hazkuntzan ahalegin eta denbora gutxiago inbertitu arren, eta emakumeak baino gehiago zaintzen eta sostengatzen direla emozionalki, baita, hasiera-garaietan, emakumeak zainduta sentitzen ziren bikoteetan ere.

Kontatutako istorioen arabera, abiatzeko posizioak ez dira hain desberdinak -emakumeek lana dute, beren nahiak baloratzen dituzte, batzuetan independizatzea lortu dute eta zainduta sentitzen dira-, eta haien bizimoduak gizonen antzekoak dira. Hala ere, kontakizunak erakusten du norberaren baliabideak murrizten joaten direla gizonei gauza bera gertatzen ez zaien bitartean, baita prozesua bikotearen proiektu komun bat denean ere. Hori dela-eta, historiak ondorio desberdinak ekartzen ditu, eta horrek bikoteko bi kideak leku desberdinetan jarriko ditu, bai termino materialetan, bai psikologikoetan, negoziazioari erreparatuta. Nolabait esateko, **emakumeak bikotean galtzen duenak areagotzen du bere ahultasuna dibortziatu edo banantzerakoan**. Prozesu horren ondoren, autoestimua eta ahalduntzen duten ohiturak eta baliabideak galtzeak esan nahi du existentzialki berrantolatu eta autonomian birkokatu behar dutela. Nolanahi ere,

**erraztasuna** dute lagunen eta senitartekoen sareekin berriz konektatzeko eta gaitasun handia **beren prozesu pertsonala** aztertzeko eta lantzeko.

Dena den, aztertutako kasuetan badira salbuespenak; izan ere, egoera batzuetan emakumeek gutxiago galdu dute, banantzea baliabide gehiagorekin iritsi dira, modu orekatuagoan negoziatzen dute, seme-alabengatik ez dute beldurrik aita bezala harengan konfiantza dutelako, eta prozesua hobeto onar dezakete.

**Hirugarren ondorioa:** *banantzea atzeratu ohi da haurrak hazi arte. Zaintza partekatua desiratu edo beldurgarria izan daiteke, banantzearen aurretik hazkuntza nola partekatu denaren arabera. Bikotekide ohien erantzun eta jarreretik beldurrak, akordioak zehazterakoan, beherantz negoziatzera eramaten ditu.*

Ondorioak atera ditzakegu banantze-prozesuan bizitako zailtasunak eta ondorioak kontuan hartuta. Alde batetik, banantzea atzeratzeko joera agertzen da harik eta seme-alabak hazi arte. Emakumeek denbora eta ahalegin askoz ere gehiago inbertitutako egoeretan, hori gertatzen da, egoera horiek batzuetan biziak eta “naturalak” izanik; halaber, gizonak ez badute parte hartzen, ez dituzte pertsona fidagarritzat hartzen zaintza partekaturako. Formula hori orokorra da, eta horren probabilitatea ikusten dute emakumeek. Gainera, **beldurra** banantze-prozesuekin batera doan emozioa da, eta **amore ematera eta beherantz negoziatzera** bultzatzen ditu, gatazkak saihesteko, oro har, eta haurrei erreparatuta, bereziki. Eta beldurra ulergarria da, bitartean, eta horrela agertzen da kontakizun askotan: gizonak sendo agertzen dira, beren kokapen auto erreferentea areagotzen dute, haserre erantzuten diote emakumearen erabakiari, ez dute ulertzen eta ez dira ulertzen saiatzen ere. Emaitzak, kasu horietan, erabat kontrajartzen ditu leku komunak eta emakumeek dibortzioetan duten jarrerari buruzko aurreiritzi sexistak.

Zaintza partekatua formula orokortu bezala hautemateak min eta ezintasun handia eragiten die emakume batzuei, batez ere ez datorrelako bat bikoteak ordura arte egin dituen eguneroko zaintza-praktikekin. Nolabaiteko adostasuna dago hori aitatasun patroian interpretatzeko, pentsioak ez ordaintzeko edo emakumeak familia-etxea ez erabiltzeko estrategia gisa, eta ez bakarrik emakumeen artean, baita profesional batzuen artean ere. Hazkuntzan aitak inplikazio handiagoa izan duen kasuetan, hots, haiengan konfiantza dutenean, edota seme-alabak zaharragoak direnean, bat datoz formula horrekin, eta autonomia eta esperientzia pertsonalak eraikitze aukera moduan erabiltzen dute.

**Laugarren ondorioa:** *Ezkatuko eta naturalizatutako indarkeria matxista areagotu egiten da banantzerakoan. Ezinbestekoa da genero-arloan prestatzea esku hartzen duten profesionalak, tratu txarren egoera ugari detektatu eta jorratzeko. Tratu txarrak genero-indarkeriaren kontzeptu espezifikoaren barruan sartuta edo sartu gabe, gizon batzuek gauzatutako botere-harremanetan gertatzen dira.*

Kontuan izanik emakumeen aurkako indarkeriak egiturazko desberdintasunari erantzuten diola eta botere maskulinoa erabiltzearen ondorio dela, nazioarteko, estatuotako eta foruko araudi-esparruek ezartzen duten moduan, indarkeria-jokabideak eta -egoerak identifikatzeak bi zailtasun ditu:

Alde batetik, ez dago muga nabarmenik desberdintasunaren patroien eta indarkeriaren artean. Izan ere, eta sensibilizazioari eta fenomeno ulertzeari esker, egun indarkeria “ikusten” eta identifikatzen dugu, duela urte batzuk “normaltasuna” ikusten genuen lekuan. Indarkeriazko jokabideek harreman-asimetrian

hondoratzen dituzte sustraiak, eta, asimetria hori, berez, jada kaltegarria da, eta ondoezak eragiten ditu emakumeengan. Beraz, ez da hain erraza, eta bikotearen historia ezagutu gabe, "indarkeria dagoen" ala ez zehaztea. Gainera, legeek definitzen duten moduan indarkeria dagoela ikusten ez badugu, litekeena da, analisisian egiaztatu dugun moduan, bikote batek **egoera simetrikoa** ez izatea, bi kideek baliabide berak izanik edo "modu desegokian" jokatu modu berdintsuan. Alegia, profesionalki garrantzitsua izango litzateke **boterearekin lotuta gertatzen den guztiari erreparatzea, indarkeria-egoera bat hertsiki gertatzen ez denean.**

Bestetik, genero-arloko prestakuntzarik gabe, asimetria erlazional horiek ziurrenik hauteman gabe -aldeak bezala interpretatuko direnak-, ez da ziurra ezta ere gizon askok **gauzatutako indarkeria identifikatzen eta antzematen** jakitea, **begien bistakoa ez denean**, indarkeria fisikoarekin gertatzen den moduan. Horren ondorioz, harreman "toxiko" edo "gatazkatsu" moduan interpreta daiteke genero-indarkeriaren prozesu bat izaten ari den harremana, eta, kasu horretan, emakumeak ahal duen moduan erantzuten du, kasu askotan seme-alabak babesten saiatuz. Hori bereizteko prestakuntzarik gabe, distantziakidetasun profesionalaren borondate baliotsuarekin joka daiteke, baina boterearen eta harremanaren nagusitasunaren oinarriari erreparatu gabe, eta, beraz, emakume horien eskubideak zaintzearekin bat ez datorren esku-hartzea eginik. Kasu okerragoetan, emakumeak birbiktimizatzen aritu gaitezke eta tratu txarrak ematen dituztenek indarkeria gehiago jasatera eramatea.

Indarkeria hori hautemateko ulermena behar da; hau da, indarkeria identifikatzeko eta horren dinamika eta zentzuei erantzuteko gaitzen duen prestakuntza. Prestakuntza hori gabe, genero-indarkeriak estatus-posizio bat indartzeko estrategia bezala duen espezifikotasuna, eta ez gertakari puntual gisa soilik, oharkabean pasa daiteke. Are gehiago, indarkeria horretatik defendatzeko edo babesteko helburua duten jokabideekin pareka daiteke.

**Bosgarren ondorioa:** *Kontzientzia feminista handiagoa edo txikiagoa izateak genero-aginduen presioa modulatzeko duela ematen du eta bikote gisa aukeratzen den gizonaren ereduaren eraginez duela. Kontzientzia handiagoarekin, berdintasun handiagoko gizonak bilatzen dira. Hala ere, asimetriak agertzen dira, horietako askok deszentratzeko eta elkarrekiko benetako loturak ezartzeko aurkezten duten erresistentziaren ondorioz.*

Kontzientzia feministaren kontzeptuaren barruan sartu ditugu autonomiari balioa ematea, ahalduntze-arlo batzuk lortzea (batez ere lan-arloan, baina autonomia eta autokudeaketa ere bai), indarkeria matxista ez esplizituaren adierazpenak hautematea, berdintasunezko maitasun-harremanak ezartzeko interes legitimoa, e.a. Gure helburua izan da horrek guztiak haien bizitzetan zenbateraino eragiten duen eta gizonekin ezartzen dituzten harremanetan, eta kasu zehatz honetan, banantze-prozesuan nola eragiten duen ikustea.

Kontakizunen arabera, aldeak agertzen dira: kontzientzia feminista txikiagoarekin, genero-aginduek eragin handiagoa dute, maitasunarekin eta amatasunarekin lotutako estereotipo jakin batzuetara hobeto egokitzen dira hasieran; bikotekidea izan aurretik baliabideak eta autonomia dituzten emakumeak dira, baina goizago lotzen dira; azkenik, hautatzen dituzten gizon-ereduak berdintasunezko balio gutxi dituztenak dira, baina ez dute hasieran hori detektatzen, desberdintasun existentzial asko naturalizatuta izateagatik. Inflexio-puntu

orokorra haiek guraso gisa duten pertzepzioarekin lotuta egon ohi da. Badirudi bikote gisa pairatzen eta naturalizatzen dituztela haien bikotekidearen jarrerak eta jokabideak, baina bat-batean baztertu egiten dituzte beren seme-alabengan proiektatuta ikusten dituztenean.

Bestalde, prozesu horretan aurreratuago daudenek –ez bakarrik prestakuntzaren aldetik, beharrezkoa izanik baina ez behar adinakoa, baizik eta berdintasuna, ekitatea, e.a. bezalako balioak eguneroko bizitzan ezarrita-, baliabide propio gehiago garatzen dituzte, pertsona gisa dituzten eskubideen kontzientzia eta defentsa handiagoa dute, genero-agindu batzuk zalantzan jarri eta horietatik libratzen dira, eta, batez ere, kasu honetan interesatzen zitzaigun zerbait, argi eta garbi maskulinitate matxista duten gizonak bazterten dituzte, eta hasiera batean, berdintasunezko balioak hautematen dituzten gizonak erakartzen eta hautatzen dituzte.

Baina harrigarriena izan da, hain zuzen ere, gizon horiek (alternatiboak, konprometituak, sentikorak) hautatzeak ez zuela elkarrekotasuna bermatzen egiaztatzea haiekiko loturaren egunerokotasunean. Izan ere, kasu askotan, bere horretan jarraitzen zuen zentraltasunak haien bizitzetan, harremanean botereari eusteko manipulatzeko gaitasunak eta/edo zaintza eta hazkuntzan benetako erantzunkidetasun bat ez izateak. Horrek frustrazio zaila eragin die emakumeei, sorpresaren aurrean ahul sentitu dira eta inoiz iritsi gabeko aldaketen zain geratu dira. Emakumeen kontakizunetan, eredu tradizioaletatik aldentutako maskulinitatea erakusten zuten gizon batzuen diskurtsoaren eta eguneroko praktikaren arteko distantzia egiaztatzeak sortutako inpaktua ikusten da. Halaber, egia da konfiantza gehiago dutela haiengan aita bezala eta banantze-prozesuetan errazago adosten dutela seme-alaben gaineko erantzukizuna. Kontakizunen arabera, ikus daiteke, haiek, sentiberago eta solidarioago, oraindik erresistentzia maskulinoa izaten jarraitzen dutela posizio auto erreferente batetik aldentzeko eta emakumeak beren interesak, nahiak eta premiak dituzten izaki autonomo bezala benetan onartzeko, elkarrekiko lotura egiaz ahalbidetuz.

Soilik emakumeek errealitatea onartzen dutenean eta espero zituzten aldaketak fantasia bat zirela eta ez zeudela batere haiek egiten zutenaren mende ulertzen dutenean, erreakzionatzen hasten dira, beren bizitza, nahia, interes eta balioekin berriro konektatzearekin batera. Hor berriro indarra hartzen dute eta bizitzako baliabide guztiak beste behin abian jarri. Eta, banantze-prozesuan zehar gehienek izaten dituzten oztopo eta zailtasun guztietatik salbuetsita ez egon arren, baliabide propio eta laguntza-sare gehiago izaten dituzte, eta horrek dibortzioaren baldintzak hobeto kudeatzen eta bizitzako etapa berri bat segurtasun handiagoarekin hasten laguntzen die.

## **Erreferentziak**

Haraway, D. (2004). Situated Knowledges: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective. In S. Harding (Ed.), *The Feminist Standpoint Theory Reader: Intellectual and Political Controversies* (103-127 or.). Routledge.

Harding, S. (2004). Introduction: Standpoint Theory as a Site of Political, Philosophic and Scientific Debate.  
In S. Harding (Ed.), *The Feminist Standpoint Theory Reader: Intellectual and Political Controversies*  
(1-16 or.). Routledge.

Illouz, E. (2019). *El fin del amor. Una sociología de las relaciones negativas*. Katz.